



GIZONAK, MASKULINITATEAK ETA BERDINTASUNA

Online ikastaroa



Aurkibidea

1. Sarrera.....	2
2. Sexua eta generoa: berdintasunik gabeko sistema baten oinarriak	3
2.1. Sexua	3
2.2. Generoa.....	4
2.3. Sexu-genero sistema	5
3. Patriarkatua, boterea eta identitatea	5
3.1. Patriarkatua eta araua.....	6
3.2. Identitatea eta araua	6
4. Generoaren sozializazio-prozesua: normatik «normalera»	8
5. Androzentrismoa, estereotipoak eta diskriminazioa: benetako ondorioak. Aske gara?	9
5.1. Androzentrismoa	9
5.2. Genero-estereotipoak.....	9
5.3. Ondorio benetakoak eta materialak	11
5.4. Hautatzeko askatasuna?.....	11
6. Identitate maskulinoen eraikuntza	12
7. Maskulinitasunak, pribilegioak eta boterea	17
8. Eredu tradizionalak, zainketa, arrisku-jarrerak eta genero-arloko arazoak gizonengan.....	23
9. Gizonetan aldaketa	26
10. Gizonok Esan eta Egin	28
11. Amaiera gisa	29
Erreferentziak.....	30

1. Sarrera

Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Kurtsoari ongietorria ematen dizuegu. Kurtsoa Emakunderen, Emakumearen Euskal Erakundea, eskutik sortu da, eta Gizonduz ekimenaren barruan kokatzen da, gizonak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko parte-hartzea eta inplikazioa bultzatzeko sortuta.



Beharbada, noizbait entzun duzu metafora hau, alegia, feminismoaren betaurreko moreak jantzi beharra dagoela mundua genero-ikuspegitik ikusteko. Agian, badakizu jada zerbait edo susmatzen duzu, «**feminismo**» eta «**genero**» hitzen azpian dauden ideien esanahiari buruz. Eta pentsatzen hasten bazara, beharbada baduzu ideiarenean bat (edo iritzi osatu bat) zenbait kontzepturen inguruan: matxismo, berdintasun, desparekotasun, diskriminazio, sexismo, genero-indarkeria, androzentrismo, etab. Ez da harrizteko, ideia hauek gure egunerokotasuneko esperientziaren parte direlako. Telebistan, prentsan, klasean, lanean, saretan, familian, lagunekin... topatzen ditugun kontzeptuak dira.

Baina, ulertzen dugu zer motatako eragina daukate gure bizitzan eta bere garrantzia bere osotasunean?

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak, eta zergatik mantentzen diren belaunaldi bakoitzean ulertzeko, kontzeptu hauek landuko ditugu banaka. Ikusiko dugu nola batzen dira guztiak egitura konplexu batean, bizi garen jendartea eraikitzen.

Dokumentu honen bigarren partean gaur egungo maskulinitatea emakume zein gizonetan daukan eragin negatiboak deskribatzen dira. Honen aurpegi ikusgarriena eta muturrekoa emakumeen kontrako indarkeria da, baina portaera sotilagoak existitzen dira, pertsona ororen egunerokotasunean presente daudenak, gehien bat emakumeen, baina baita gizonen, autonomia eta askatasuna txikitzen dutenak.

Hala eta guztiz, optimistak izateko arrazoiak daude. Gero eta gizon gehiago «**betaurreko moreak**» janzteko eta haien burua zein ingurunea begiratzeko prest daude, eta maskulinitasun eredu ezberdinak aurkitzen hasteko, gizon izateko beste modu zuzen, baketsu eta gogobetekoagoak.

2. Sexua eta generoa: berdintasunik gabeko sistema baten oinarriak

Nahiz eta askotan sinonimo giza erabili, sexua eta generoa ez dute gauza bera esan nahi. Ezberdintasuna emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ulertzea lagunduko du. Handi-handika, sexual biologiarekin erlazioa dauka eta generoa jendarte eta kulturarekin erlazioa dauka.

Hala eta guztiz ere, oinarrizko postulatu batetik abia gaitzke: pertsona guztiak, baita jaio aurretik ere, funtsezko bi kategorietako batean –itxuraz mugi ezin daitezkeenak– sailkatzen gaituzte: **gizon edo emakume**, gure **genitalak** zein diren. Banaketarako lehen ardatz **bitariko** horrek eragin sakona utziko du gure subjektibotasunaren garapenean (geure burua nola ikusten dugun), baita besteek ikusten gaituzten moduan eta, ondorioz, erlazionatzen garen moduan ere.

2.1. Sexua

Sexuaren kontzeptua sozialki eraikitako **interpretazio bat da**; hala, gure jendartean, kontzeptu horren barruan sartzen dira pertsona batzuk besteetatik bereizten dituzten ezaugarri biologikoak eta anatomikoak: barneko eta kanpoko aparatu genitala, bigarren mailako sexu-ezaugarriak (adibidez, bularrak emakumezkoetan edo bizarra gizonezkoetan), kromosomak edo karga hormonalak... Eta multzo horri kategorio sozialeko balio bat eransten zaio: ar edo eme. Kategorio horiek, generoarekin gertatzen den bezala, elkar baztertzen duten eta aldi berean elkarren osagarri diren modu batean eraikita daude. Ikusiko dugun moduan, interpretazio honek, ordena, oreka eta zuzentasun sentsazio faltsu bat sortzen du, baina desberdintasun eta diskriminaziorako oinarriak eraikitzen ditu.

Gaur egun jakinaren gainean bagaude ere sexuaren sailkapena askoz konplexuagoa dela eta konbinazio-espektrora zabal bat dagoela (Anne Fausto-Sterling), aukera bakarrak aipatutako bi kategoria horiek balira bezala antolatu izan gara historikoki.

2.2. Generoa

«**Genero**» kontzeptuak azaltzen eta argitzen digu emakumea-feminitatea eta gizona-maskulinitasuna kategoria **ikasien eraikuntza soziala** gisa. Kategoria horiek gure biologiaren interpretaziotik abiatu eta, sozializazio-prozesu konplexu baten bidez, gure bizitza osoan eraikitzen dira (hortik ematen zaigu bakoitzari sexu-kategoria bat edo bestea). Ikasten dugu neska eta mutil izaten, emakume eta gizon, segun eta zer espero den momentu historiko zein jendarte bakoitzeko.

Gure bizitzan zehar Estatuan, lan merkatuan, eskolan, hedabideetan, legean, familian, erlazio interpersonalen bitartez eta abar garatzen den **sozializazio** prozesu konplexu bat da.

Horrela, gizakien arteko harremanak aurkakotasun- (gizona eta emakumea elkarren kontrako dira) eta osagarritasun-sistema (gizonak eta emakumeak elkar «osatzen» dute) bitariko eta dual batera sinplifikatzen dira. Hurrengo urrats funtsezkoa gizonari eta maskulinoari den orori **balio sozial handiagoa** ematea izango da, eta mendekotasun-rola, berriz, emakumei eta femenoari.

Horrela, **baliokideak ez diren** bi alderditara murrizten da giza jardueraren guztia, betiere boterearen balantzak alde bat mesedetzen duela –gizonena–, besteari kaltetan.



[«Dibujando el Género 1» bideoarako esteka](#)

Sexua eta generoa konstruktua txirikordatu egiten dira ar-eme / maskulino-femenino dikotomia sortzeko eta, horrela, gure portaera, jarrera, lehentasun, desira, balio, sinesmen, ahalmen eta abarretan ditugun aldean jatorria gertakari natural bat delako ideia sustraitzeko.

2.3. Sexu-genero sistema

Orain, ulertzen dugu **sexu-genero sistemak**, izatez, **dimentsio biologiko bati** ematen diogun **dimentsio soziala** deskribatzen duela. Norberaren **sexuari** dagozkiola interpretatzen ditugun ezaugarriekin zerikusia duten pertsonen arteko desberdintasun biologikoak (beste batzuk ere badaude: azalaren kolorea, adina, ahalmen fisikoa, etab.) **hierarkizazio** sozial baterako oinarri bihurtzen dira, zeinaren kariaz, gizonek (berezi maskulinoak jotzen diren agindu sozialak betetzen dituztenak) balio eta botere handiagoa duten emakumeek baino (eta femininotzat jotzen denak baino).

Alegia, **naturalaren eta sozialaren arteko baliokidetasun faltsu baten** aitzakian betikotzen eta justifikatzen da gaur ere oraindik gure bizitzan ondorio benetakoak eta materialak dituen injustizia bat, ikastaro honetan ikusiko dugun bezala.

Hala ere, ikuspegi horrek sinetsarazten digu gure identitatea erabakitzen duen bakarra gure biologia dela, eta ez gara ohartzen gizakion sozializazio-prozesua kulturala eta ikasia dela. Horrek bereizten du gizakia beste izaki bizidun batzuetatik, eta horrek ahalbidetzen digu, beste gauza batzuen artean, modu abstraktuan pentsatzea, arrazoitzea, mintzatzeta, asmatzea... eta izaki sortzaile eta berezi modura bizitzea.

Hona esandakoaren froga bat: nahiz eta oraindik gizonen eta emakumeen artean indarrean dauden ezberdintasunak funtsezkoak izan, historian zehar izan diren aldaketak ikustea nahikoa da egiaztatzeko jendartearen dugun lekua ez duela gure sexuak erabakitzen, baizik eta pertsonok eraldatzen ahalegintzen ari garen horrek.

3. Patriarkatua, boterea eta identitatea

Aurrez planteatu den bezala, generoko **berdintasun eza** ez da eratzen **desberdintasun** sexual edo biologikoagatik; aldiz, **kulturalki fabrikatzen dugu**, itxuraz itxita dauden bi kategoriatako gizakiak soilik «sortzen» ditugun neurrian. Gainera, pertsonok ez gara beti aske, burujabe eta autonomo bizitzen, baizik eta zenbait **botere-sistemaren** barruan bizi gara elkarrekin. Alde guztietatik inguratzen gaituzte sistema horiek, izan ditzaketen aldaera guztietan: familian, ikasten edo lan egiten dugun lekuetan edota estatuko hainbat eremutan.

3.1. Patriarkatua eta araua

Sistema horien guztien funtzionamendua aztertzen hasi beharrik gabe, adostu dezakegu **sexu-genero sistema** beti presente dagoela eta gainerako egitura guztiak zeharkatzen dituela, berak ezartzen baitigu jatorrizko lehen **araua** gure gorputzen gainean. Genero-sistemari dagokionez, boterearen ardatz nagusia emakumeen mendekotasun orokorra da, eta gizonen nagusitasuna, feminismoak **patriarkatu** izenarekin definitu zuen egitura batean.

Emakundek (Emakumearen Euskal Erakundea) bere terminoen glosarioan honela definitzen du **patriarkatua**:

«Zentzurik zabalenean hartuz gero, gizonek familiako emakume eta haurrengan duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa da, eta nagusitasun maskulino hori gizarteko emakume guztiengana zabaltzea. Horrek esan nahi du gizarteko instituzio garrantzitsu guztien boterea gizonek dutela eta emakumeei ez zaiela botere hori izaten uzten. Ez du esan nahi emakumeek ez dutenik inolako botererik edo eskubiderik, edo eragin eta baliabide guztiak kendu zaizkienik. Emakumeen historian dagoen erronka handienetako bat da sakon eta zehaztasunez arakatzea historian zehar patriarkatuak izan dituen erak, egituretan eta eginkizunetan izan dituen bira eta aldaketak, eta presio eta eskakizun femeninoengatik egin dituen egokitzapenak». (Berdintasun Terminoen Hiztegia. CAVE/Wg) Emakunde.euskadi.eus







3.2. Identitatea eta araua

Horrela, patriarkatua **arau sozial** bitariko eta heterozentrista¹ bat ezarri izanaz baliatzen da, zeinak ezaugarri biologikoen arabera sailkatzen baititu pertsonak –ar eta eme–, eta, halaber, kategoria bakoitzari genero-identitate eta -adierazpen propioak ematen dizkio, argi eta garbi bereiziak eta sexu-orientazio bakarrarekin: heterosexual.

Hurrengo koadroan, sexu-genero sistemen tradiziozko sozializazio-eredu bitarikoa laburbilduta ageri da.²

¹ Berez pertsona guztiak heterosexualak direlako ustea da heterozentrismoa, eta printzipio horretatik abiatuta antolatzen ditu arau sozialak.

² Miquel Missék eta Gerar Coll-Planasek egindako koadroa.

ARAU		
SEXUA	ARRA	EMEA
		
GENERO IDENTITATEA	GIZONA	EMAKUMEA
		
GENERO ADIERAZPENA	MASKULINOA	FEMENINOA
		
SEXU ORIENTAZIOA	HETEROSEXUALAK	

Miquel Missé eta Gerar Coll-Planas



[Miquel Missé-ren “Sexu-aniztasuna eta genero-identitatea” bideorako esteka](#)

Sailkapen tradizional horrek talka egiten du errealitatearekin, zeina malguagoa, konplexuagoa eta aldakorragoa baita. Gaur egun, kategoriak garai batean baino malguagoak dira, eta ohartzen gara zenbait sailetan aurrerapen handiak egin direla. Hala ere, antzinako ikuspegi hori oraindik oso bizirik dago gure jendartean.

Kategorizazio sexistak askatasun pertsonalak mugatzen ditu, bere ideologiaren bidez jendearen portaerak «normalizat» edo «anormalizat» jotzen baititu, eta, horrela, bi kategoria horietatik kanpo dauden pertsonak bazterturik geratzen dira. Hala, pertsona intersexualek, transexualek, transgeneroek, LGBTBI+ kolektibokoek eta, oro har, bere genero-adierazpena sozialki onartutakoarekin bat ez datorren kasuan dauden guztiek, askotan, **diskriminazioa eta jendartearen zigorra** jasan behar izaten dute, hainbat modutan.

Izan ere, generoaren eraikuntza da gure jendarte-egiturako ardatz indartsuenetako bat, erro-errotik moldatzen baikaitu eta eragiten baitigu: gure gorputzean, gure gogoan eta gure «bihotzean» (gurari edo desiretan).

4. Generoaren sozializazio-prozesua: normatik «normalera»

Sozializazioa etengabeko prozesu bat da, zeinari esker gizakiok hainbat **arau, kode eta patro**i ikasten ditugun, hain zuzen ere, inguruan dugun jendarte-egituran integratuko gaituztenak, gai pertsonal eta zehatzenetatik hasi (gure identitatea) eta eraikuntza abstraktuenetaraino (gure balioak eta sinesmenak). Prozesu hori bizitza osoan gertatzen da, *agente sozializatzaileak* tarteko direla: familia, eskola, hizkuntza, komunikabideak, tradizioak, erlijioak, legeak, ekonomia, eta beste ezin konta ahala presio, neurri handiagoan edo txikiagoan, **moldekatzen gaituztenak** –eta gu ere haietara **moldatzen gara**–, «jendarte-ordenan» bizi, eta hura erreproduzitu eta betikotu dezagun.

Horrela, esandako «molde» horiekin bat datozen edo «egokitzen» diren edo ez diren aukera, modu eta mailen espektroa oso zabala izan arren, jendartearen joera da generoa bi kategoriatan polarizatzea, femeninoa eta maskulinoa, eta horietako bakoitzari bere iruditeria propioa eransten zaio, finkotzat eta aldaezintzat jotzen dena.

Emakumearen Institutuko zuzendari ohi Marina Subiratsek zioen errepresioaren eredutik **sedukzioan** oinarritutako beste batera igaro garela emakumeen eta gizonen portaerak edo izaerak finkatzeko orduan. Horrela, txikitatik hasita, edertasunari eta «bestearen» zaintzari lotutako ereduarekin liluratzen dituzte neskatoak; mutikoak, aldiz, beste eredu batekin seduzitzen dituzte: jendartean abantaila-egoera batean kokatuko dituzten lorpen ekonomiko eta sozialak azpimarratzen dira oraindik mutilen kasuan.

Halaxe da, sozializazio-prozesu konplexu baten eraginez, giza espeziea izaki sozialak eta elkarren mendekoak gara, baina ez baliokideak. Sozializazio sexistak, hertsatze edo presioaren eta sedukzioaren bitartez, mugatu egiten ditu pertsonen bizitzak, eta gurutzatu behar ez ditugun esperientzien mugak markatzen dizkigu, botere-egitura diskriminatzaile baten barruan.

5. Androzentrismoa, estereotipoak eta diskriminazioa: benetako ondorioak. Aske gara?

5.1. Androzentrismoa

Jendarte osoaren garapena gizona lekurik gorenean dagoen botere-egitura baten barruan izatearen ondorioetako bat da, hain zuzen ere, bizitza (hau da, kultura, jakintza, historia eta abar) ez dela hasieran aipatu ditugun betaurreko moreetatik zehar ikusten, baizik eta gizonaren ikuspegitik. Beraz, ikusmolde partziala izango da, osatugabea. **Androzentrismoa** mundua ikuspegi maskulinitatik ikusteko eta ulertzeko modua da.

Maskulinoa estandar modura hartzen da, jendartearen neurritzat; hori da irizpide fidagarriena, arrazoiaren oinarritua. Femeninoa, ostera, salbuespenezkoa da, bestea, bestelakoa, emozioaren oinarritua.

Horren emaitza modura, maskulinoa unibertatsala egiten da, eta feminismoa, aldiz, ikusezin. Adibidez, sufragio unibertatsala ezarri zen gizonak jada botoa zeukatenean.

5.2. Genero-estereotipoak


Sozializazio-prozesuari esker, ia inkontzienteki asimilatzen eta geure egiten dugu (izan daiteke **hertsaduraz** edota **sedukzioz**), **genero-estereotipoak** aldi berean direla **deskribatzaileak** –«emakumeak emozionalagoak dira, gizonak arrazionalagoak»– eta **agintzaileak** –«gizonak ez dute negar egin behar, emakumeek ama izateko asmoa izan behar dute». Gainera, genero-estereotipoek oso era partikularrean funtzionatzen dute, berdintasunik ezaren **kausa eta ondorio** baitira aldi berean.

Estereotipoak inguru sozialak eta kulturalak inposatutako eta aurrez erabakitako ideiaz, aurreiritziz, jarreraz, sinestez eta iritziz osatuak daude, eta orokorrean aplikatzen zaizkie kategoria, nazionalitate, etnia, sexu, adin, sexu-orientazio edo jatorri geografiko bateko pertsona guztiei (Wikipedia).

Estereotipoek indar handia dute, funtzio egokitzailea eta funtzionala betetzen baitute: gure bizitza sinplifikatzen laguntzen digute, ahalegina eta substantzia grisa aurrezten, alegia. Ezingo ginatke bizi ezagutzen dugun pertsona bati buruz guzti-guztia, hutsetik hasita, ikasi beharko bagenu.

Baina estereotipoek «**pigmalion efektua**» ere sortzen dute: gure identitatea moldatzen dugu guregandik espero den horretara, eta, hala, gure portaeraren bitartez, estereotipoak betiketzerara irits gaitezke.

Izaki pentsatzaile eta burujabeak garen neurrian, **genero-estereotipoek** egokitze-funtzio hori noiz betetzen ez duten antzematen ikasi behar genuke; izan ere, horren ordez, berdintasunik eza, injustizia eta pribilegioak zilegitzen eta betikotzen ari baitira. Estereotipoak gidatzen erabiltzeak ondorio bikoitza dakar: alde batetik, judizio-erakuntzak erabaki okerrak hartzera eraman gaitzake (ez dugulako informazio erreala erabiltzen, baizik eta ustezkoa), eta, bestetik, okerreko aurreiritzi horiek diskriminaziora eraman gaitzakete.



1979an, Nazio Batuetako *Emakumearen aurkako diskriminazio era guztiak ezabatzeari buruzko hitzarmenak* (CEDAW) honela definitu zuen **diskriminazioa**:

"Sexuan oinarritutako bereizketa, bazterketa edo murrizketa oro, halakoen xedea edo ondorioa denean gutxitzea edo deuseztatzea [...] giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen aitortzea, eta horiek gozatzeko eta baliatzeko eskubidea, dela politikan, ekonomian, jendartearen nahiz kulturaren, esparru zibilean edo beste edozein esparrutan."

Gaur egun, esan dezakegu badela **berdintasun formala**, legeak bermatzen digun hori. Hala ere, ez genioke begirik kendu behar **berdintasun** (edo berdintasun falta) **errealari**, hau da, gure ohiko **jendarte-antolakuntzatik** eratortzen denari. Egoera esplizituei eta ageriko diskriminazioei hobeto antzemateko joera izan ohi dugu, pertsona gehienok ez baikaude halakoekin ados. Zailagoa izaten da, ordea, egoera diskriminatzaileei antzematea **ituraz neutroak** direnean, baina horrek ez du esan nahi bazterketarik ez dagoenik eta zuzenbidearen kontrakoak ez direnik.

5.3. Ondorio benetakoak eta materialak

Baldin eta gure inguruari aurrez aipatu ditugun betaurreko moreak jantzita begiratzen badiogu, adibide andana ikusten hasiko gara non genero-aginduek bere eragina daukaten, neurri handiagoan edo txikiagoan.

Azkeneko “[ZIFRAK 2018](#)” txostenak –Euskadiko emakume eta gizonen egoerari buruzkoa– islatzen du generoaren araberako zatiketa ari dela gertatzen gure bizi-proiektuetan, bai eta **lanaren zatiketa sexuala** ere, ordaindua eta ordaindu gabea (zainketa-lanak), eta horrek, azkenik, **produkzio- eta botere-harremanak eratzen dituela** gure jendartean.

5.4. Hautatzeko askatasuna?

Gai honetan dugu genero-eredu sexisten sozializazioari buruzko eztabaida interesgarrienetako bat. Zenbateraino daukagu hautatzeko askatasuna, edo ikasitakoa mekanikoki errepikatu baino ez dugu egiten? Eta hautatzeko askatasunik ez badago: zergatik daude ideia eta portaera hain desberdinak dituzten pertsonak?

Alde batetik, ez daukagu ukatzerik sexu-genero sistemaren eragina gure erabakietan. Adibidez, jo dezagun bikote baten kasua dugula, eta lanetik eszedentzia nork hartu erabaki behar dutela, haur bat edo mendekotasuna duen pertsona bat zaintzeko. Kasu horretan, argudiatu ohi da askatasunez hartutako erabakia dela, eta horretan ez dutela eraginik tradiziozko genero-aginduek. Baina, zainketari eta etxeko lanei buruzko estatistiketan ikusi dugun bezala, ez da horrela. Itxuraz askeak diruditen erabaki horietako askotan, eragin erabakigarria izaten du gure sozializazio sexistak.

Hala eta guztiz ere, generoaz gainera, badira faktore gehiago identitatearen eraketan eragina dutenak, hala nola klase soziala, baliabide ekonomikoak, adina, burujabetza, higikortasuna, jatorria, orientazio sexuala, azalaren kolorea, etab. Hautatzeko askatasuna testuinguru sozial eta une historiko jakinetan gauzatzen da. Argi dago ez dela gauza bera homosexualitatea publikoki aitortzea 50eko hamarraldian edo gaur egun, eta, askatasuna hedatu ahala, handitu egin dela bizimodua hautatzeko aukera ere.

Erantzukizun indibiduala eta kolektiboa hautatzeko askatasunari lotuta dago. Zaila da esatea ez daukagula inolako aukerarik hautatzeko noraino errepikatzen edo betiketzen ditugun eredu sexistak; izan ere, geure burua geure ekintzen erantzule izatetik eta berdintasun eza ezabatzeko izan behar genukeen konpromisotik salbuesten ariko baikinake. Esate baterako, adierazten badugu: «Sexista naiz horrela hezi nindutelako», ez dugu norbanakoaren erantzukizuna aitortzen, baizik eta «jendarteari» egozten diogu erantzukizuna. Sozializazio-eredu sexistak ez du

hartzen jendarte homogeen eta uniforme baten osotasuna, baizik eta, berdintasunaren inguruan, zorionez, hainbat motatako diskurtsoak eta praktikak daude.

Esan genezake, gure bizitzan zehar, hainbat tentsio sozializatzaile biltzen direla, eta, horien funtzionamendua eta ondorioak ulertzen eta «ikusten» ditugunean, kontra egin ahal izango diegula, bizitza-ereduetan dibertsitate aberatsago batera igarotzeko. Nolanahi ere, esan dezakegu generoko berdintasun eza (ez dugu nahastu behar generoen artean dauden aldeekin) gure biologiarene emaitza soilak balitz ez gukeela eraldatzeko aukera handirik izango. Hala ere, baldin eta sozialki eraiki bagara, izango dugu sozialki deseraikitzeo aukera ere.

6. Identitate maskulinoen eraikuntza

Abiapuntu ona litzateke planteatzea ea identitate maskulino bakar batez mintza gaitezkeen. Gure jendartean bakarrik al dago gizona izateko ideia finko bat? Esan dezagun, hasteko, «gizon» terminoan ez dela sartzen soilik pertsona talde bat zeinen identitatea haien gorputzek definitzen duten. Beraz, termino hori erabiliko dugu sexu-identitate horrekin identifikatzen diren pertsonak aipatzeko, haien gorputza edo genitalak kontuan hartu gabe, eta gogoan izanik gizon-emakume dikotomiak ez duela inondik ere jasotzen gure jendartean sor daitezkeen sexu zein genero-identitate eta -adierazpen guztien dibertsitatea.

Michael Kimmel-ek (1997: 49) honako hau planteatzen du maskulinitasunaz:

«Gizontasuna ez da estatikoa, ez denboraz kanpoko, historikoa da; ez da barruko esentzia baten adierazpena, sozialki eraikitako zerbait da; ez da gure osagai biologikoetatik kontzientziara igotzen; kulturaren sortzen da. Gizontasunak gauza desberdinak esan nahi ditu aro desberdinetan eta pertsona desberdinentzat».

Ingurura begiratu dezakegu, eta maskulinitatearen ideia norbanakoan nahiz taldean haragitzeko hainbat modu daudela egiaztatu, maskulinitatearen ideia honakotzat hartuta, Jokin Azpiatzuk adierazten duen moduan: «Genero-agindua (gizontentzat) ideia perfektu, ukiezin eta lorrezin gisa irudikatzeo modua da». Aniztasun maskulinoak gaur egun iraganen baino zabalago adierazten diren arren, aniztasun horiek maskulinitatearen ideia itxi eta hertsatzaile batekin markatutako mugarik duten aztertu beharko guke, mugaketa hori hausten dutenak «gizonen» taldeetik baztertzea eta gizarteak gizonen gizon izate hutsagatik ematen jarraitzen dizkien pribilegioetatik nolabait kanporatzea ekar baitezake horrek.

Subjektibotasun maskulino deitzen diogu maskulinitasunaren ideia barneratzeko dugun moduari.

Gure jendarteko maskulinitasunaren tradiziozko idealaren sozializazio-prozesuetan, hainbat indarrek dute eragina, eta, batzuetan, mezu kontraesankorrak jaulkitzen dituzte, horietako batzuk erresistenteagoak eta berdintasun ezaren sostengatzaileak baitira; beste batzuk, aldiz, egitura-soziala aldatzearen alde bultzaka ari dira, berdintasunean oinarriturik.

Horrek guztiak balioak sozializatzeko sistema bat markatzen du, denbora eta testuinguru jakin batzuei dagokiena. Horien barruan, maskulinitasunei buruzko ideiak definitzen dira, eta gizonei zuzendutako genero-aginduak ezartzen dira.

Genero-sozializazioaren ereduak diote maskulinitasuna ez dela esentzia bat. Ez da «berezkoa», baizik eta «egin egiten da», gizonen nagusitasuna justifikatzeko joera duen ideologia baten barruan. Ildo horretan, maskulinitasunaren ideala alda daiteke eta, izatez, aldatu egin da jendarte-aldaketekin batera. Elisabeth Badinter-ek dio (1992. 24) maskulinitasuna, zentzu horretan, erlatiboa eta erreaktiboa dela. Horrela, bada, feminitatea aldatzen, berresten edo eraldatzen bada, maskulinitasunak egonkortasuna galtzen du. Bestalde, maskulinitasunaren diskurtso hegemoniko bat dagoen arren, maskulinitasuna irudikatzeko hainbat modu daude, eta aitortza sozial berbera ez duten arren, testuinguru historiko eta kultural berean bizi dira elkarrekin.

Hainbat faktore aurkituko ditugu etorkizunerako proiektzio desberdinak eraikitzen dituztenak gizonetan, emakumeekin alderatuta, eta haien sexu-identitatea modu garrantzitsuan eratzen dutenak. Norma Vazquezek adierazten duen bezala (2011,13), beste batzuen artean, honako hauek dute eragina:

- Ingurunearen sailkapena. Adibidez: gure ingurune sozial eta kulturean zer jarduera jotzen diren gizonenak.
- Hainbat objektu, espazio, kolore eta abar maskulino bezala sailkatzea.
- Generoaren estereotipo kulturalak: gizonek jendartean nolakoak izan behar duten, nola jokatu, pentsatu eta sentitu behar duten definitzen duten ereduak edo jokabideak, emakumei eta gizonei ematen zaizkien atributu edo ezaugarri multzo bat irudikatzen dutenak.
- Onartutako jokabide-arauak, gizon gisa behar bezala jokatzeko den edo ez balioztatzea ahalbidetzen dutenak.

- Jendartea dituen jarrerak gizon batengandik espero diren portaeretara zorrotz eta estu lotzen ez diren jokabideen inguruan.

Azter dezagun, beraz, non dauden gizonen portaera batzuk zuzentzat eta beste batzuk okertzat markatzen dituzten mugak, eta nola ezartzen diren esandako muga horiek. Horretarako, beharrezkoa da «gizon bat izateari» buruz gure jendartean dauden indar-ideiak aztertzea”.



[“Gizonek haien bizitzan zehar entzuten dituzten 48 esaldi” bideoarako esteka](#)

Horiek bezalako mezuak ohikoak dira eta «normaltzat» hartzen dira; horrela, «gizon izatearen» ideia orokor bat ematen zaigu eta, gizon askorentzat, bizi osoko proba bihurtzen dira, bere maskulinitasuna frogatu ahal izateko.

Bideoan ageri ideiei arreta jartzen badiegu, haietako askok lotura dute Elisabeth Badinterrek (1992.51) planteatzen dituen hiru ideiak markatzen dituzten mugekin, identitate maskulinoa balioztatzeari buruz. Gizon batek bere burua eta besteak konbentzitu beharko ditu: **ez dela haur bat, ez dela emakume bat eta ez dela homosexuala**; bere maskulinitatea defendatu behar izango du oposizioz “ez gizonen” aurrean.

Horrela, bada, identitate maskulinoan norberaren pertzepzioa –gizon gisa «ematen dut neurria»–, eta ingurunearekiko harremana –«gizona da»– bateratzen dira. «Mutilak ez dira panpinekin jolasten», «Arrosa nesken kolorea da», «Kontxo, indar handia duzu!», «Neska batek jo al zaitu?», «Neska batek bezala tiratzen duzu», «Ez zaitetz maritxua izan», «Erakutsiozu nork agintzen duen», «Ez zaitetz kexatia izan»,

«Beraz... etxeko lanak egiten dituzu...» (“48 cosas que los hombres escuchan a lo largo de su vida” bideoaren esaldiak)

Alegia, ideal maskulinoaren eta haur –mutil–, emakumezko eta gizonezko gayen arteko aldeak eta diferentziak markatzen dira. Ideal hori urrundu egiten da haurtzaroan mutikoei baimentzen zaizkien zenbait ezaugarritatik, hala nola ahultasuna, zainketaren beharra eta justifikazioa (bai emozionala eta bai babestua izatekoa), eta mendekotasuna; kontrako aldean daude heldutasun maskulinoaren balioak: independentzia, indarra, nork bere buruarekiko segurtasuna, burujabetasuna, etab.

Emakumeetatik –edota, gure jendartearen emakumeen ezaugarriekin identifikatzen den horretatik– bereiztea oso parte garrantzitsua da tradiziozko maskulinitasunaren eraikuntzan.

Gizon askorentzat gizontasuna historikoki emakumeei atxikitzen dieten nolakotasun eta portaeretatik aldendu behar da, hauen balioa gutxitzen, tradiziozko maskulinoak diren nolakotasun eta portaeren aurrean.

Kontua ez da soilik emakumeen eta gizonen arteko aldeak argitzat eta aldaezintzat jotzea, baizik eta gauzak «emakume batek edo neska batek bezala» egitea ekintza hori edo trebetasun bat debaluatzea edo barregarri uztea.

Hurrengo bideoan, «*Hacer las cosas como una niña*», esandakoaren adibide bat ikusiko dugu.



[“Neska bat bezala gauzak egitea” bideoarako esteka](#)

Gizon askoren portaerak eta haien genero-adierazpenak asko markatzen dituen beste faktore bat da norbera homosexuala ez dela erakutsi beharra.

Gay ez izatea eta homosexualenak direla uler daitezkeen portaeretatik aldentzea konstante bat izan da tradiziozko ideal maskulinoa eratzeko orduan. Sexu bereko pertsonak maite eta haiekin sexu-harremanak dituzten pertsonen eskubideen inguruan bai jendartean eta bai legetan gertatu diren aldaketak gorabehera, oraindik ez da ezabatu homofobia jendartetik eta, aurrerapena bistakoa bada ere, bazterketa, homofobia eta transfobia nonahi ikus dezakegu.

Oscar Guasch-ek, «Masculinidades y homofobias: resistencia y liberación»³ konferentzian, «gay ez izate» hori markatzen duten bi motatako homofobiak planteatzen zituen. Alde batetik, **homofobia sinplea** aipatzen zuen, batez ere gay eta homosexualeri eragiten diena.

Bestalde, Oscar Guaschek **homofobia konplexua** deitzen dio gizon guztiei –haien sexu-joera edozein dela ere– eragiten dien homofobia sotil eta ikusezin bati. Homofobia konplexua gizonen maskulinitasuna eta gizontasuna –maskulinitasunak ematen dien estatus soziala, alegia– galtzeko beldurrean oinarritzen da. Homosexualen kontra erabiltzen da *maritxu* hitza, baina, irain modura, *gizon gisa «neurria» ematen ez dutenen kontra ere erabiltzen da. «Maritxua» da mutil heterosexual afeminatua. «Maritxua» da kiroletan beti azkena eta arnasestuka iristen den mutiko potoloa. «Maritxua» da koldarra, beldurtia. Laburbildurik: «Maritxua» da gizon gisa neurria ematen ez duen guztia* (Guasch⁴). Era horretan, tradiziozko portaera arautuak ez dituzten gizonak emakumeek okupatzen duten genero-espazio berean kokatzen dira.

Homofobia konplexuaren mehatxupear, gizon asko homosexualak ez direla erakutsi beharrean sentitzen dira, eta «gizon» jokabidetzat jotzen dituztenak indartzen dituzte arriskuko portaeretan, beste gizonekiko lehiakortasunean edota harreman pertsonal eta afektiboetan.

Beraz, alde batetik, portaera maskulino anitz eta gizon izateko eredu desberdinak bizi dira elkarrekin, beste alde batetik, oraindik presente dago zenbait muga argi eta garbi markatzen dituen maskulinitasuna ulertzeko modua ere. Gurutzatzea komeni ez den marra gorriak. «Genero-zainketa», gizonek haien buruen eta beste gizonen gainean egiten duten etengabeko kontrola –hain zuzen, «benetako gizonaren» eredu idealizatuarekin alderatuta (Kimmel, 1997), haien diskurtsoak eta praktikak

³ Berdintasunaren aldeko Gizonen Topaketak, Sant Boi de Llobregat (Bartzelona), 2013ko azaroa

⁴ «Masculinidades y homofobias: resistencia y liberación»

zaintzeko-, tradiziozko maskulinitasun eredu bakarra eta finkoa erreproduzitzen eta sostengatzen jarraitzen duen mekanismoaren parte da.

Hortaz, gure jendartea iraganean baino irekiagoa eta dibertsoagoa den arren, eta gizon gisa identifikatzen direnen maskulinitasuna bizitzeko era desberdinak hautematen eta ezagutzen baditugu ere, aniztasun horrek baditu marra argi batzuk gizon izatearen esanahia mugatzen dutenak, alegia, zer espero den haiengandik eta zer genero-agindu bete behar dituzten abantaila eta pribilegio sozialeko toki hori okupatzeko.

7. Maskulinitasunak, pribilegioak eta boterea

Adierazi da jada, ikastaro honetan, genero-harremanek diskriminazioarekin eta berdintasun ezarekin dituzten loturak. Maskulinitasunaren idealak gizonen eta emakumeen arteko (genero artekoak) eta gizonen arteko (genero barrukoak) hainbat erlazio konfiguratzeko ditu, zeinek jendartea antolatzen duten.

Raewyn Connell soziologoaren arabera, maskulinitasunak gizonei zuzendutako genero-aginduak gauzatzeko moduak dira. Azter genezake zer lotura duten modu horiek gure jendarteko pribilegiozko posizioekin, eta nola ezartzen dituzten hierarkiak emakumeekiko eta hegemonikoak ez diren beste maskulinitasun mota batzuekiko.

R. Connellek (2012) honela sailkatzen ditu gaur egun Mendebaldean nagusi diren maskulinitasun-patroi nagusiak: hegemonikoak, mendekoak, konplizeak, eta bazterrekoak.

Hegemonikoak. Esan daiteke gizonen nagusitasun-posizioa eta emakumeen mendekotasuna bermatzen dutenak (edo bermatzeko ezartzen direnak) direla. Dinamika kultural horren bitartez, talde batek buruzagitza-posizio bat eskatzen eta mantentzen du jendarte-bizitzan. Edozein garaitan, maskulinitasun mota zehatz bat goraiatzeko da kulturalki, beste batzuen ordeztu. Maskulinitasun hegemonikoak ez du esan nahi hura ordezkatzeko dutenak boterean daudenik, baizik eta berdintasun eza eta gizonen pribilegioak aldeztu dituztela, gizon izate hutsagatik.

Agian, gure jendarte-testuinguruan, eredu maskulino hegemoniko esplizituki matxista hori gutxiengoa da. Aurrerapen orokorra gertatu da jendartean irudi matxista horren kontra, gizon gehienek orain ez baitituzte emakumeen eta gizonen arteko ideia eta berdintasun-gabezia estrukturalak aldeztu iraganean bezain argi.

Baina interesgarria izango litzateke aztertzea, hala ere, eredu hegemonikoa definitzen duten ideia horietatik zenbat adierazten diren beste forma batzuetan.

Konplizeak. Gizonen hegemonia eta boterea justifikatzen ez badute ere, emakumeen mendekotasunari esker lortzen dituzten abantailak ongi baliatzen dituztenen maskulinitasuna. *Dibidendu patriarkal* deitzen diegu abantaila horiei. Hau da, emakumeekin alderatuta, gizon izateagatik gizonen alde metatu eta haien onuragarri diren abantailen multzoa litzateke.

Dibidendu patriarkala bereganatzen duten gizonen gehiengo handi batek emakumeen eta gizonen arteko eskubide-berdintasunaren aldeko diskurtsoak sostenga ditzake.

Hona zer irakur daitekeen José Ángel Lozoya Gómezen [Privilegios Masculinos](#) artikuluan:

“Pribilegio maskulinoak gizonekook emakumeen bizkar gozatzen ditugun abantailak dira, jaiotzetiko eskubidez. Hain daude naturalizatuta, ezen kosta egiten baita imajinatzea indarraren legez inposatu zirela noizbait; arau kultural gisa mantentzen dira, gizon eta emakumeok erreproduzitzen ditugulako, nahiz eta lehenengoentzat bakarrik diren onuragarri. Erlazio-patroi bat dira eta, auzitan jartzen direnean, hainbat herrialdetan, lege misoginoenen zama guztia emakumezko lege-hausleen kontra erabiltzeko justifikatzen dira; gure artean, berriz, bikotekidea azpiratzeko indar fisikoa erabiltzen duten gizon askoren justifikazioa dira”.

Maskulinitasun konplizeen artean aurkitzen dugu erresistentzia handiena gizon askok gure jendartean dituzten onurak aitortzeko orduan. Askotan, pribilegio edo abantaila bat gozatzea eta horrekin ados egotea nahasten dira; izan ere, ez baita erraza pribilegio edo abantaila sozialak dituen talde batekoa zarela aitortzea.

Enplegu gero eta prekarioagoak dituen jendarte batean, edota, itxuraz, emakumeok eta gizonok jendartean toki berberak okupatzen ditugun honetan, oraindik gizon askok galdetzen diote bere buruari: «Zer onura dut nik horretatik?»

Artikuluan adierazten den bezala, gizon asko emakumeen kontra indarkeria erabiltzearen aurka daude, baina ez dira ohartzen gizonak direlako halakorik jasan behar ez dutenez abantaila bat dela beraietzat, askatasun handiagoa goza dezaketelako eta beldur gutxiago dutelako espazio publikoa okupatzeko orduan. Eta ez dute ikusten, era berean, etxeko eta zainketa-lanetan dauden aldeak direla medio, erraztasun handiagoa dutela erantzukizuneko postuetan lan egiteko; lana eskatzen dutenean, aita izateko gogoia ontzat hartzen diete, eta, aldiz, balio negatiboa izaten da, emakumeek ama izan nahi badute.

Berdintasun ezaren kontra egoteak ez gaitu hartaz baliatzenetik salbuesten, jendarte-harremanen parte handi batek mantendu eta indartu egiten baitu, eta gizon asko abantaila-postuetan kokatzen dira jendarteko eremu guztietan.

Jakintza eta trebetasunak askoz gehiago aitortzen zaizkie gizonari; emakumeak, aldiz, objektu sexual eta gauza bihurtzen dira haien jardute profesionaletan.




Machismo, medios y deporte: ellos "fuertes" y ellas "solteras"

- Un estudio elaborado por Cambridge University Press desvela la diferencia en el tratamiento de las y los deportistas: de ellas se destaca su estado civil, su edad o su apariencia
- Las mujeres "compiten", "luchan" y "participan" mientras que los hombres "ganan" y "dominan"
- Cuando ganas una medalla y el titular se lo dan a tu marido

Marta Borraz | Seguir a @martaBORRAZ | 22 comentarios

04/08/2016 - 12:07h

Las 6 deportistas más sexys de los Juegos Olímpicos de Río de Janeiro



Lehenik eta behin, berdintasun ezari dagozkion egoerak identifikatu behar ditugu, eta nola eragiten diguten bai norbanako gisa eta bai kolektiboki; gero, geure buruari galdetuko diogu: Zer egiten dut haiek desager daitezten, bai arlo pertsonalean, bai sozialean?

Nahiz eta gizon guztiak haien buruari galdera hauek egitearen arduradun izan eta egin ditzake aldaketak aintzat hartu behar izan, azpimarratzekoa da halako aldaketa batzuk egiteko aukerak ez direla berak izan gizon guztietan. Ezin diegu erantzukizun berbera eskatu zaurgarritasun sozial egoeran dagoen gizon-talde bati, eta erabaki politikoak, ekonomikoak edo kulturalak hartzeko ahalmena duten gizonari. Maila desberdineko erantzukizunak dituzte, ekintzarako ahalmena ere hala dutelako. Horregatik, zaila gertatzen da kategoria berean biltzea Irun eta Hondarribiko berdintasunezko alardeetan parte hartzen duten gizonak eta alarde

sexista eta baztertzailleak mantentzen dituztenak. Edota eszedentzia baliatzen dutenak zainketarako eta erabiltzen ez dituztenak.

Horregatik ez da komeni gizonen sexismoa orokortzen eta sakontasunik gabe analizatzea (gizonak dira...) ezin izango dugulako ikasi emandako aurrera pausuetatik nahiz eta txiki eta lotsati irudi daitezzen, markatzen dizkigutelako aurrerapen horiek handiagoak izan daitezela zein bidetik jarraitu behar dugun.

Gizon «konplizeen» taldean –gizon-talde ugariena, gaur egun– portaera eta jokabide aniztasun handia dago. Portaera sexistenetatik hasi eta, berdintasuna jomuga dutela, aldaketa pertsonal eta kolektiboa lortzeko lanean ari direnetaraino. Ildo horretan, hona zer dioen Jokin Azpiazuk (2016):

“Gaur egun, Europa hegoaldeko herrialdeetan, ez dut uste alfa arraren eredu bortitz, inposatzaile eta negar egiten ez duen hori denik hegemonia maskulinoa mantentzen eta erreproduzitzen duena. Iruditzen zait eredu horrek zilegitasuna galdu duela, hainbat espaziotan behintzat, eta lekua irabazten ari dena beste bat dela, anitzagoa, konplexuagoa, hain agerikoa ez dena. Azkenean, posizio berera iristen den eredu, baina bide desberdinetatik igarota”.

Azkenean, posizio berera iristen den eredu, baina bide desberdinetatik igarota». Alegia, Connellek «maskulinitasun konplizeak» deitzen dieten sartzan diren ereduak dira gaur egun berdintasun eza mantentzen eta betikotzen dutenak. Berdintasun ez hori, berdintasunaren aldeko diskurtsoen aterkipean, iraganean ez bezalako beste forma batzuetan antolatzen du jendarteak, baina genero-identitateen eta -hierarkien arabera berdintasun eza eta diskriminazioa mantentzen jarraitzen du.

Mendekoak. Gizon-taldeen arteko nagusitasuneko genero-erlazio espezifikoean gertatzen dira. Kasurik garrantzizkoenak gizon heterosexualeen nagusitasuna eta gizon homosexualen mendekotasuna dira. Ez da bakarra; badira maskulinitasun ez-hegemonikoan kokatzen diren beste eredu batzuk ere, hala nola transgeneroak edo bere generoarekiko disidentekak, maskulinitasun hegemonikoak markatzen duen «zilegitasun» zirkulutik bota dituztenak.

Baztertuak. Azkenik, Connellek adierazten digu badirela beste faktore batzuk maskulinitasunaren artean berdintasun eza eta **maskulinitasun baztertuak** eragiten dituztenak.

Generoaren eta beste egitura batzuen arteko erlaziotik –hala nola klase-soziala, etnia, sexu-orientazioa edo erlijioa– beste harreman zabalago batzuk sortzen dira maskulinitasunaren artean. Ez da gauza bera klase ertaineko gizon autoktono bat izatea, edo paperik gabe dagoen eta erreferentziako oinarri sozial urriko gizon etorkin bat izatea. Gizonek jendartean duten egoeran eragina duten faktoreen elkarguneetatik –hala nola etnia, hizkuntza, lege-egoera, mugikortasun funtzionala, etab.– gure jendartean baztertuak geratzen diren maskulinitasunak sortzen dira; maskulinitasun horiek ez dituzte ez beste batzuek dituzten aukera berberak ez eta maila bereko boterea ere.

Badira zenbait eredu maskulino beste batzuen botere-eta eragin-mailarik ez dutenak. Baina egoera berean dauden emakumeek baino botere gutxiago al dute?

Zeintzuk dira maskulinitasunaren eta boterearen arteko harremanak? Nola moldatzen dituzte botere-erlazioak eta genero-desberdintasunak maskulinitasunei buruzko arau sozial eta kulturalak?

Hona hemen «Hombres, Masculinidades y Cambios en el Poder: Un documento de debate sobre la participación de los hombres en la igualdad de género desde Beijing 1995 hasta el año 2015» dokumentuaren pasarte bat:

“Boterearen barruan sartzen da, besteak beste, norberaren bizitzari buruz erabakiak hartzeko ahalmena eta lortu nahi diren helburuetan eragina izatekoa edo haiek lortzekoa. Erlazio guztietan du eragina botereak, zeina, era berean, pertsona bakoitzaren identitate sozialek –hor sartzen dira generoa, arraza, klase-soziala, sexu-orientazioa, adina, erlijioa, herritartasuna, etab.– moldatzen eta baldintzatzen baitute. Genero-desberdintasunak norbaiten gaineko boteretik edo botere-formen gaineko kontrolatik abiatuta definitzen dira; aldiz, emakumeen ahalduntzea handitzeko ahaleginek eta genero-berdintasuna sustatzeko egiten direnek boterearen forma alternatiboak bultzatzen saiatzen dira: boterea zerbaitetarako; boterea norbaitekin eta barne-boterea; hertsapenik edo nagusitasun gabeko helburu erkideen alde lan egiteko indar indibidualak eta kolektiboak erabiltzen saiatzen direnak”.

Maskulinitasunaren ikaskuntza estu lotuta dago botere-egiturak maneiatzen eta barneratzen ikastearekin. Gizonek botere politiko, ekonomiko eta sozialeko egituren bitartez antolatutako jendarteak ikaskuntza-egitura bat sortzen zuen boterean dagoen taldearentzat –gizonak–, hain zuzen ere, boterea baliatzen jarrai zezan.

Boterea gizonengan mantendu duten egiturak ez dira, hala ere, sozialak bakarrik izan, baizik eta bizitzako alde guztietan aurki ditzakegu. Beraz, berdintasun eza sostengatzen duten erakunde eta egitura ekonomiko eta sozial bidegabeak izatearen mende egoteaz gainera, garrantzitsua da nola barneratzen ditugun haiek gizon eta emakumeok, nola eraikitzen ditugun gure subjektibotasunak, zer-nolako hitzarmenak egiten ditugun gizon eta emakumeok, eta nolako konplizitateak eta itunak eratzen diren gizonen artean haien abantaila eta pribilegioei eusteko, hau guztia berdintasun eza eusten laguntzen du.

Botereari eta haren definizioari buruz, eztabaida interesgarriak daude testu honetan lantzen dena baino harago heltzen direnak, baina interesgarria litzateke analisi hau eragin-zirkulu pertsonaletara aplikatzea, ikusteko nola partekatzen, erabiltzen edo pairatzen diren botere-erlazioak, eta zer lekutan gauden erlazio horietan.

Foucault (1976) filosofoaren ideia aplikatuta –«*Nagusitasuna [ez da] pertsona batek beste batzuen gain, edo talde batek beste batean, erabiltzen duen menderatze sendo eta global hori, baizik eta jendarte baten barnean erabiltzen diren menderatze forma guztiak*»–, galde genezake: Zer neurritan eraikitzen ditu pertsona bakoitzak berdintasun eza sortzen duten edo hura mantentzen laguntzen duten botere-erlazioak? Nola erreproduzitzen ditugu berdintasunik gabeko botere-egiturak gure profesionalengan, gure bizikidetzaren unitateetan edo gure harreman sozialetan?

Leire Gartzia (2011,18), lan-munduari erreferentzia eginez, honako hau dio:

...gure jendartean emakumeei eta gizonei hezkuntza desberdina eman izanaren ondorioz... instrumentalitate-ezaugarriak (independentzia, goranahia, asertibitatea, nagusitasuna, oldarkortasuna) maskulinitatearekin lotzen dira. "Maskulinoaren" eta instrumentalaren eta "femeninoaren" eta adierazkortasunaren arteko erlazio horiek eragin handia dute lan-eremuko lidergoaren eta kudeaketa-ereduen definizioan. Horrela, enpresa-eraginkortasuna gizonei egotzi izan zaie, emakumeak, izan ere, luzaroan lan-merkatutik egotziak izan baitira, eta lidergo-ereduak gizonak erreferentzia gisa hartuta eraiki dira».

Ikus dezakegu eredu horrek berdin funtzionatzen duela politikaren edota ekonomiaren alorrean, non mekanismoa antzekoa baita. Lidergo maskulinoaren ereduak unibertsala bihurtu da; lidergo horretara heltzeko, jada ez da beharrezkoa gizona izatea, nahikoa da maskulinitateari egotzen zaizkion lidergo instrumentaleko formak erabiltzea (boterearen eta lidergoaren maskulinizazioa).

Horrela, zenbait alditan, emakumeek gizonen modu berean erabiltzen dute boterea eta lidergoa; kasu horretan, beraz, boterean daudenen gorputzak aldatzen dira, baina arauak ez dira aldatzen.

Eta, alderantziz, badaude zenbait gizon ere boterea erabiltzeko beste era batzuk esperimentatzen hasi direnak, eredu maskulino zurrunik urrundurik; horrela, «tradizioz maskulinoak ez diren» beste ezaugarri batzuetara irekitzen hasi dira: esate baterako, enpatiara edota elkarlanera.

8. Eredu tradizionalak, zainketa, arrisku-jarrerak eta genero-arloko arazoak gizonengan

Nola eragiten dute tradiziozko maskulinitasun-ereduek garrantzitsuak diren zenbait alderdirekin gizonen duten erlazioan; adibidez, osasunarekin, norbere buruaren zaintzarekin edo arriskuaren pertzepzioarekin?

Badinterrek dio gizonen ideal maskulinora hurbiltzeko eskatzen zaizkien ahaleginek estutasuna eta zailtasun afektiboak, porrot egiteko beldurra eta konpentsazio-jokabide potentzialki arriskutsuak eta suntsitzaileak sortzen dizkietela.

Garrantzitsua da argi uztea ezin ditugula ezein kasutan gizonak «biktimatza» hartu, hau da, generoaren eraikuntzak bai emakumeei eta bai gizonen berdin kalte egiten digula pentsatu. Gizon askok genero-aginduei kasu egiteagatik kalteak pairatzen badituzte, agindu horiek gure jendartearen pribilegioak eta abantailak ematen dizkietelako da eta, aldiz, agindu horiek berek mendekotasun eta berdintasun gabeko egoeran kokatzen dituzte emakumeak. Esan dezagun gizon asko prest daudela prezio garesti bat ordaintzeko bizitzako arlo guztietan posizio sozial eta pertsonal hobea edukitzeagatik.

Arriskuari eta gizonen autozaintzari dagokionez, zenbait azterlanek ezaugarri maskulino espezifikoen berri ematen dute gizonen osasun-sistemarekin duten interakzioan; adibidez, gorputzeko alarma-zeinuak hautemateko zailtasuna, gutxiesten dituzten neurrian (Luis Bonino 2002). Horri erantzen zaio, gainera, ez dutela onartzen, ez haien buruari ez besteen aurrean, ondoezen bat dutenik. Horregatik geroratu egin ohi dute medikuaren kontsultara joatea eta izan dezaketen gaixotasunaren diagnostika. Zailtasunak izaten dituzte, era berean, medikuaren esanak egiteko eta tratamenduak amaieraraino betetzeko, eta horrek zuzenean eragina izaten du gaixotasunaren sendaketan.

Benno de Keljzer doktoreak honako hau nabarmentzen du:

“Maskulinotasunaren eta osasunaren gaia lantzen dugunean, maskulinotasunari egozten zaizkion hainbat ezaugarriren eta zenbait eritasunen arteko lotura estua alde batera utzita, nabarmentzen den gauza bat da gizonen aldetik ez dela osasunaren aldeko ia neurririk hartzen. Tailerretan gizonok aitortzen dugu zailtasunak ditugula laguntza eskatzeko, ukatu egiten dugula gaixo gaudela eta ez dugula geure burua zaintzeko neurririk hartzen, ez neurri medikorik, ez bizitzeko moduarekin zerikusia duenik”.

Horrela, bada, ikusten dugu gizonei zuzendutako zenbait genero-aginduk baldintzatzen dutela osasunaren kudeaketa eta autozaintza.

Maiz ikusten dugu gure inguruan, eguneroko jardueretan, gizonak haien identitate maskulinoa sendotzen saiatzen direla, nolabaiteko arriskua duten ausardia- eta indar-erakustaldien bidez. Inguruabar eta egoera gehiegitan erakutsi behar da «bat ez dela koldarra» gizontasunaren eredu tradizionalenen arabera.

Egia da arriskuaren zentzuak, zenbait kasutan, subjektibotasun-osagai indartsua izaten duela, norbanakoaren ezaugarri propioei lotuta egoten baita eta, neurri batean, baita testuinguru sozial zehatz batzuei ere. Mary Douglas antropologoak (1996, 57) «*immunitate subjektibo*» terminoa erabiltzen du pertsonak arriskuaren aurrean ez zaiela ezer txarrik gertatuko uste izateko joera adierazteko; izan ere, etengabe egiten dituzten jarduera sozialak hain menderatuak dituzte, non konfiantza handiegia jartzen baitute haien ekintzetan. Adibidez, automobilean egunero ibilbide bera egiten denean.

Galde diezaiozun geure buruari: Modu berean eraikitzen al ditugu **arriskuarekiko aurreuste pertsonalak** emakumeek eta gizonek? Hona zer litzatekeen «*arriskuarekiko aurreuste pertsonala*»: pertsonak, arrakasta ekonomiko edo sozialaren bitartez, maila onargarriko autoestimua edo aitortza erdiesteko bere gain hartu behar duela irizten dion arrisku-kantitatea eta -kalitatea.

Oso eremu desberdinak kontuan hartzen dituzten arriskuak dira, gure hautatzeko ahalmena ere desberdina den bezala. Behin-behineko kontratuarekin azpikontrata batentzat lanean ari bagara, argi dago geure gain har genitzakeen laneko arriskuei buruz erabakitzeke ahalmen mugatua izango dugula. Aldiz, borondatezko jardueretan arreta jartzen badugu (higikortasuna eta zirkulazioa, kirola, kontsumoak, etab.), halakoetan gizonak gehiengo izateak erakusten digu aukera horiek lotura dutela maskulinitatearekin ulertzeko duten moduarekin. Beraz,

beharrezkoa da genero-ikuspegitik begiratzea droga-kontsumoei, gidatzeko moduari, arriskuko kirolei, edo laneko istripuei, eta adierazle guztiek egiaztatzen eta berresten dute gizonak arriskuko ekintza gehiago egiten dituztela.

Ondoren erakusten diren datuak aztertzeko orduan, kontuan eduki behar da, genero-erlazioei dagokienez, maskulinitasunaren eraikuntza ez dela, seguru, haien kausa bakarra. Baina aintzat hartu behar da zer neurritan dagoen presente eta zenbaterainoko eragina duen fenomeno horietan. Aztertu beharko dugu ea emakumeek eta gizonak pertzepzio desberdina garatzen ote duten arriskuari buruz eta, horrela baldin bada, genero-identitateak nola eragiten duen horretan. Nola interpretatu behar ditugu zifra hauek?

Heriotzak kanpoko arrazoiengatik	Gizonak	Emakumeak
Guztira	43,5	25,0
Motordun ibilgailuen trafikoko istripuak	6,6	1,8
Bestelako garraio-istripuak	0,7	0,2
Istripuzko erorikoak	7,0	6,1
Istripuzko itotzeak, murgilketak eta itolarriak	7,3	6,1
Suak, keak eta substantzia beroak eragindako istripuak	0,5	0,4
Psikofarmakoen eta drogen bidezko istripuzko pozoidurak	2,2	1,1
Istripuzko beste pozoidura batzuk	0,6	0,2
Bestelako istripuak	4,8	3,8
Suizidioa eta nork bere buruari egindako lesioak	11,9	4,1

Iturria: INE, 2017. Unitateak: 100.000 biztanleko.

Urte bateko argazki finkoa bada ere, emakumeen eta gizonen proportzioak, atal guztietan, ia ez dira aldatzen beste urte batzuen aldean. Hortaz, arrisku-faktore gisa hartu behar dugu gizon askorentzat arrisku-jokabideak onartzea edo haiei garrantzia kentzea bere maskulinitasunaren eta hari loturik datozen genero-aginduen parte dela, izan ere, horrela jokatzek aitortza soziala eta prestigioa ematen baitie. Alegia, eredu tradizionalak pribilegioak eta prestigioa eragiten ditu, baina, bide horretan, zenbait eredu maskulinoren presioek faktura ere pasatzen dute.

Gizonen eta emakumeen bizi-itxaropena oso desberdina da, 80,4 urte gizonak eta 85,9 urte emakumeak. Diferentzia horrek ez du esplikazio biologikorik; aldiz, batzuek eta besteek dituzten jokabide sozial desberdinen ondorio litzateke eta, funtsean, bizi-ohitura desberdinetan luke jatorria.

2014ko INEren datuetan, suizidioa da, gizonen artean, kanpoko arrazoi ondoz gertatzen heriotzen lehen arrazoa; gero datoz zirkulazio-istripuak eta ezbeharrez

gertatutako erorketak. Beste faktore batzuen artean, zifra horiek emakumeek eta gizonak emozioak maneiatzeko orduan dituzten jokaera desberdinekin lotuko genituzke. Kontuan izanik suizidio-kausa batzuek buruko gaixotasun edo nahasmenduetan, depresioetan, eritasun kronikoetan, gertakari pertsonaletan, bakardadean edo errotze faltan izan dezaketela jatorria, egokia dirudi aipatzea maskulinitasunaren eredu tradizionalak eremu honetan duen eragina, kontzeptu horrek ahul agertzea eta sentimenduak partekatzea galarazten baitu.

Espetxe-erakundeetako gizon presentzia izugarria delitu komisioen partetik, 54.753 gizon eta 4.368 emakume atxilotuak espainiar estatuan 2018ko urtarrilean, erlazioa dauka, beste kausa batzuen artean, gizon askoren joerarekin arauak hausteko arazo eta konfliktu ebazpen metodologia gisa.

Beste alde batetik, auto istripuei dagokionez, ez dago dudarik emakume eta gizonen artean dauden ezberdintasunak mugikortasunari begira. 2015 urtean, 81.253 gizon eta 8.192 emakume izan ziren zigortuak bide-segurtasun kontrako delituengatik.

Drogak kontsumitzeko modua ere desberdina da gizonen eta emakumeen artean. Gizonak nahasketa gehiago egiten dituzte eta dosi handiagoak hartzen dituzte; maizago irteten dira, gustura sentitzen dira olgetarako gune edo tokietan, beranduago erretiratzen dira, eta gehiago kontsumitzen dute. Ikusten da, halaber, arrisku-pertzepzio txikiagoa dutela substantziak kontsumitzean, zuhurtasun gutxiago dutela, ez direla haien jostaldia antolatzeaz arduratzen eta festara doazenean ez dutela aurreikusten zer edo zenbat kontsumitu, eta emakumeek baino substantzia ilegal gehiago erabiltzen dituztela.⁵

Gizonezkoen eta emakumezkoen droga-kontsumoak oso modu desberdinean baloratu izan dira eta baloratzen dira oraindik ere. «Gizonen kasuan, haien sexuari dagokion jardueratzat hartzen da; kontsumitzen ez duen gizonaren gizontasuna zalantzan jartzeraino, noiz edo noiz» (Farapi SL, 2009), emakumeen kasuan, berriz, laidoztatzeko arrazoia izan da.

9. Gizonetan aldaketa

Orain arte, ezberdintasunen jatorria, produkzioa eta erreprodukzioa sortzen dituen sistema sozialaren funtzionamenduari buruz hausnartu da. Baita, gure

⁵ «Drogas de ocio y perspectiva de género en la Comunidad Autónoma Vasca» Angel Rekaldek eta Carlos Vilchesekegina, 2003

jendartean mantentzen diren genero ezberdintasunak egiaztatzen duten datuak eman dira. Honez gain, berdintasunaren aldeko aurrerapen nagusiak feminismo, emakumeen eta LGBTBI+ kolektiboen borrokaren ondorioak direla adierazi da, gizon askok aldaketak onartzeko orduan atzeratuak jarraitzen duten bitartean.

Hala ere, ez da egia gizonak aldatzen ari ez direla. Gizon asko hausnartzen ari dira, bai banakako mailan, baita, kolektiboan, haien berdintasunaren, dibertsitatearen, eta beste maskulinitate-ereduen aldeko ekarpenei buruz. Bereziki azken 2 urteetan, ikusten ari da genero-sozializazioaren eredu tradizionalak erreproduzitzen jarraitzeko balioa zalantzan jartzen duen korrontea. Gero eta ohikoagoak dira hedabideetan, sare sozialetan, liburuetan, politikan, kiroletan, eta oro har kulturean, argi eta garbi maskulinitasun-arau murriztatzaileen menpe bizi eta erlazionatzen kritikatzeko duten gizonen.

Berdintasunezko posizioetaranzko gizonen aldaketarako arrazoi batzuk

Jendartea gizonen baloreen eta jarreraren aldaketaren alde izan behar da, politika, ideologia eta etikaren ikuspuntutik berdintasuna giza eskubide bat delako eta bizikidetzat laguntzen duelako. Berdintasunaren aldeko aldaketa gizonengan haien hurbileko emakumeentzat, haien buruentzat eta jendartearentzat onurak emango lituzke.

Emakumeentzat onura zuzenak. Adibide bezala, zaintza lanen bereizketa batera pasatzea, denbora eta posibilitate gehiago utziko lieke pertsonalki eta profesionalki errealizatzeko.

Gizonentzat onura zuzenak. Berdintasunaren aldeko gizona izatea, zainketa ardura handiagoa izatea esan nahi du, bai besteengan baita norbere buruarengan. Beste abantailen artean, autoestimua hobetzen du, hazkuntza pertsonala laguntzen du, eta erlazioen kalitatea hobetzen ditu bai emakume zein gizonekin.

Onura zuzenak jendarte osoarentzat. Giza Garapen Indize handien daukaten herriak, edo beste era batera esanda, pertsonen kapazitate garapenari eta askatasunari errespetua daukaten herriak, berdintasun handiagokoak dira. Baina logika honen kontrako ere da posible: emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko lorpen handien daukaten herriak, gehiago garatzen dira eta bertan bizi diren pertsonak bizi-kalitate hobeto bat disfrutatzen dute. Ondorioz, berdintasuna ongizatea lortzeko erreminta bat da, bazterketa eta marjinazioa lasta ekonomiko zein kulturalaren kontra.

10. Gizonok esan eta egin

Gizonen eta emakumeen berdintasunean ematen ari diren aurrerapausoetan inplikatzeko hasteko aukera ona da Gizonduzen kanpaina honekin bat egitea: [Gizonok esan eta egin](#). Gizonen zuzenduriko kanpaina horretan, berdintasunaren aldeko ekintza zehatzak proposatzen dira, geure buruarengan eta jarreretan aldaketak abiarazteko dauzkagun baliabideak erabili eta hedatzearen alde egiten da, eta berdintasunaren aldeko nahiz indarkeria matxistaren kontrako borrokarekin bat egiteko deia egiten da. Hori guzti hori lortzeko, kanpainak eskuera dauzkagun 25 aukera, ideia eta baliabide eskaintzen dizkigu, eta, halaber, ekintza eta konpromiso berriak proposatzera animatzen gaitu.

Bada, bertan topatuko dugun lehenengo ekintzak geure baitara begiratzea proposatzen digu, gure jarrera sexistak azter ditzagun. «Aztertu zure matxismoa» test erraz bat da, eta, horri esker, ordura arte atzeman gabeko jarrerak ikusi ahalko ditugu gudan.

Hortik aurrera, zainketa-erantzukizunak har ditzakegu geure gain: etxeko lanetan eta zaintza-lanetan erantzukizuna areagotu dezakegu, eta haurrak nahiz mendekoak zaintzeko baimenak, lanaldi-murrizketak eta eszedentziak erabiltzeko konpromisoa hartu. Era berean, gizonak lan-arloko erantzunkidetasunean eta zaintzetan gehiago inplikatzeko sustatuko duten neurriak hartu eta sustatzera animatzen du, eta gurasotasun positiboaren aldeko prestakuntza-jardueretan parte hartzea azpimarratzen.

Aurrez aurreko nahiz lineako ikastaroak eginez berdintasun-gaietan trebatzea edo ikastaro horiek norberaren lan-eremuan egitea da beste aukera bat, bai eta hezkuntza-eremuan hezkidetzak sustatuko duten ekimenak babestea ere.

Halaber, produktu sexistak kontsumitzeko eta horiekin jarduteko dugun moduari koherentzia emateko, hedabideetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatzeko eta zurrumurru sexistei bide ez emateko proposamenak jasotzen dira. Azkenik, indarkeria matxista salatzeari eta desagerrarazteari begirako hainbat ekintza biltzen dira, eremu publikoan, kontsumoan nahiz egunerokotasunean egitekoak.

11. Amaiera gisa

Maskulinitasuna krisian eta eztabaidan dago. Emakumea botere sozial, politiko edo ekonomikoaren forma guztietara eta lan-merkatura heldu izana; LGTB+ identitate berriak sortu eta aitortu izana, eta berdintasunezko jendarte baten alde dauden gizonen aldaketak direla eta, genero-identitateen eraikuntzari eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokienez, gure jendartea bilakaera edota garapena dago.

Berdintasuna xede duten aldaketa-proposamenek auzitan jarri beharko dituzte kategoria finko eta itxiztat hartzen diren identitate maskulinoa eta femeninoa. Beharrezkoa da ezabatzea, edo, behintzat, errotik aldatzea, maskulinitasunaren gaur egungo kategoria soziala, eta identitate-aniztasun ireki eta malguagoak aitortzea, sortzea eta zilegitzea. Genero-identitate bitarikoak eta baztertzailak desagertu egin behar lirateke jendartearen faktore antolatzaile modura, eta erreferentzia-eredu anizkun, malgu, ireki eta ez-dogmatikoei utzi behar litzaieke bidea.



[«Explora tu masculinidad. ¿Los machos no bailan?» bideoarako esteka](#)

Erreferentziak

1. Azpiazu Carballo, Jokin (2.012). “Grupos de hombres y discursos sobre la masculinidad: ¿Nuevas configuraciones?”. Tesis doctoral.
2. Azpiazu Carballo, Jokin. (2.017). “Masculinidades y feminismos”. Barcelona. Virus.
3. Beauvoir, Sione, El segundo sexo, Buenos Aires, Siglo Veinte, 1968.
4. Bonino, Luis (1998). “Micromachismos”. Bruselas: City & Shelter, (Euro PRO-Fem, www.menpro-feminist.org).
5. Bonino, Luis (1991). “Varones y abuso domestico”, P. Anrom n, Salud mental y ley, Madrid, AEN.
6. Bourdieu, Pierre (2000) “La Dominación Masculina”. Barcelona. Anagrama
7. Bullen, Meggi y Hernández, Jone Miren (2011). “Conocimiento teórico feminista”. Máster de igualdad de mujeres y hombres UPV/EHU.
8. Butler, Judith, Gender Trouble: Feminism and the Subversión of Identity, Nueva York, Routlegde, 1990. Hay traducción en castellano.
9. Convención sobre la eliminación de todas las formas de discriminación contra la mujer (CEDAW) y Protocolo facultativo, www.un.org/womewatch/daw/cedaw
10. COBO, Rosa, Fundamentos del patriarcado moderno. Jean-Jacques Rousseau, Madrid, Ed. Cátedra, Col. Feminismos, 1996.
11. Coll-planas, Gerard (2010), La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans, Madrid-Barcelona: Egales.
12. Coll-planas, Gerard – VIDAL, Maria (2013), Dibuijant el gènere, València: Edicions 96.
13. Connell, RW (1995). “La organización social de la masculinidad”. Biblioteca Virtual de Ciencias Sociales Web para el desarrollo de las ciencias sociales en Perú.

14. Douglas, Mary (1996). “La aceptabilidad del riesgo según las ciencias sociales”. Barcelona. Paidós. Identidad masculina y procesos de socialización: crítica, cambios y resistencias.
15. EINSENSTEIN, Zillah, (Comp.) Patriarcado capitalista y feminismo socialista. México: Siglo XXI, 1980.
16. Emakunde, Instituto Vasco de la Mujer. Cifras 2016, Mujeres y Hombres en Euskadi. Eusko Jaularitza-Gobierno Vasco. http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/es_emakunde/adjuntos/cifras_2018_res.pdf
17. Gartzia Fernández, Leire (2011). “Empresas del siglo XXI: de pensar en “masculino” a pensar en “andrógino””. Tesis doctoral. Diputación Foral de Gipuzkoa.
18. Guasch, Oscar (2014). “Masculinidades y homofobias: resistencia y liberación”. Este texto fue leído por su autor en el Encuentro de Hombres por la Igualdad que tuvo lugar en Sant Boi de Llobregat (Barcelona). Las disidentes.
19. “Hombres, masculinidades y cambios”. Documento de debate sobre la participación de los hombres en la igualdad de género desde Beijing 1995 hasta el año 2015. Men Engage. Y ONU mujeres
20. Hooks, Bell (2017) El Feminismo Es Para Todo El Mundo. Traficantes de Sueños.
21. Jociles Rubio. Maria José. El estudio sobre las masculinidades. Panorámica general.2001
22. Kaufman, Michel (1994). “El feminismo y las experiencias contradictorias del poder entre los hombres”. Versión revisada del artículo “Men, Feminism, and Mens's Contradictory Experiences of Power”, publicado en Harry Brod y Michael Kaufman, editores, Theorizing Masculinities, Thousand Oaks, Sage Publications.
23. Llona, Miren (2011). “La construcción histórica de las identidades de género contemporáneas”. Máster de igualdad de mujeres y hombres UPV/EHU.
24. Lorente Acosta, Miguel (2013). “El postmachismo”. Blog autopsia.
25. MISSÉ, Miquel (2013), Transexualidades, otras miradas posibles, Barcelona/Madrid: Egales.



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

